



DEIALDIA	CONVOCATORIA
<p>Tolosako enpresetan euskara erabiltzeko planak sustatzeko dirulaguntzak norgehiagokako araubidez emateko deialdi irekia.</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1.Xedea.</li><li>2.Bete beharreko baldintzak.</li><li>3.Finantziazioa.</li><li>4.Eskaerak.</li><li>5.Dirulaguntzen zenbatekoa.</li><li>6.Erabakia.</li><li>7.Onuradunen betebeharrak.</li><li>8.Dirulaguntza ordaintzeko modua.</li><li>9. Dirulaguntzen bateragarritasuna.</li><li>10.Dirulaguntza aldatzea.</li><li>11.Zuzenbide osagarria.</li><li>12.Errekurtsoak</li></ol>	<p>Convocatoria abierta para la concesión en régimen de concurrencia competitiva de las subvenciones para el fomento de planes de uso del euskera en las empresas de Tolosa.</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1.Objeto.</li><li>2.Requisitos.</li><li>3.Financiación.</li><li>4.Solicitudes.</li><li>5.Importe de las subvenciones a conceder.</li><li>6.Resolución.</li><li>7.Obligaciones de la parte beneficiaria.</li><li>8.Forma de abono de la subvención.</li><li>9.Compatibilidad de las subvenciones.</li><li>10.Modificación de la subvención.</li><li>11.Derecho supletorio.</li><li>12.Recursos</li></ol>
<ol style="list-style-type: none"><li>1. Xedea.</li></ol> <p>Dirulaguntza hauen xedea da Tolosako enpresetan euskara planak bidera daitezen bultzatzea.</p> <p>Honako gastu hauek jaso ditzakete dirulaguntzak: planok bideratzeko enpresa eskatzaileak kontratatutako aholkularitza edo zerbitzu-enpresak eskatzaileari urte horretan fakturatutako gastuak.</p> <ol style="list-style-type: none"><li>2. Bete beharreko baldintzak.</li></ol> <p>Dirulaguntza eskuratu nahi duen enpresak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:</p>	<ol style="list-style-type: none"><li>1.Objeto.</li></ol> <p>El objeto de estas subvenciones es promover el desarrollo de planes de euskera en las empresas de Tolosa.</p> <p>Serán gastos subvencionables los siguientes: los gastos que la asesoría o empresa de servicios contratada por la parte solicitante para la realización de los planes mencionados facture dentro del año en curso a dicho solicitante.</p> <ol style="list-style-type: none"><li>2.Requisitos.</li></ol> <p>La empresa que desee recibir esta</p>



<p>—Jarduera burutzeko Udalaren baimena izatea.</p> <p>—Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea.</p> <p>—Egunean egotea betebeharriskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan eta baita Udalarekin ere.</p> <p>3. Finantziarioa.</p> <p>Tolosako Udalaren 2019ko aurrekontuko 0900 481.0133510 partidaren kargura, 5.000 euro.</p> <p>4. Eskerak.</p> <p>Eskerak Udaleko inprimakian aurkeztu beharko dira, (<a href="http://www.tolosa.eus">www.tolosa.eus</a>) eta ongi beteta Udaletxeko Erregistro Elektronikoa aurkeztu beharko dira aurtengo abenduaren 1a baino lehen, sinatuta.</p> <p>Hauetz gainera, beste modu hauetan ere aurkeztu ahal izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- 39/2015 legearen 2.1 artikuluan aipatzen diren gainontzeko erregistro elektronikoa.</li><li>- Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.</li><li>- Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan eta bulego kontsularretan.</li><li>- Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.</li><li>- Indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan.</li></ul> <p>Hurrengo dokumentazioa ere aurkeztu beharko da:</p> <p>—Urte horretarako enpresak duen euskara plana.</p> <p>—Erakundeei egindako diru-laguntza eskaeren zein jadanik emandako diru-</p>	<p>subvención deberá reunir los siguientes requisitos:</p> <p>— Disponer de la licencia municipal de actividad.</p> <p>— No estar incurso en ninguna de las causas señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre.</p> <p>— Estar al corriente de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social, así como del Ayuntamiento.</p> <p>3.Financiación.</p> <p>Importe de 5.000 euros a cargo de la partida 0900 481.0133510 del presupuesto municipal del 2019</p> <p>4.Solicitudes.</p> <p>Las solicitudes se presentarán en los impresos proporcionados por el Ayuntamiento, en el Registro Electrónico (<a href="http://www.tolosa.eus">www.tolosa.eus</a>) del mismo, debidamente cumplimentados y firmados, antes del 1 de diciembre del presente año.</p> <p>Además, también se podrá presentar la solicitud por estos otros medios:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- En el resto de Registros Electrónicos citados en el artículo 2.1 de la Ley 39/2015.</li><li>-En las oficinas de Correos, de la forma establecida reglamentariamente.</li><li>- En las delegaciones diplomáticas y en las oficinas consulares que España tiene en el extranjero.</li><li>- En las oficinas de ayuda al Registro.</li><li>- En cualquier otro lugar que aparezca en las disposiciones en vigor.</li></ul> <p>También tendrá que presentar la siguiente documentación:</p>
---	---



<p>laguntzen gaineko zinpeko aitortpena.</p> <p>—Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiria edo udaletik hori egiaztatu ahal izateko baimena.</p> <p>—Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako diru laguntzak jasotzeko debeku kausen pean ez dagoela dioen zinpeko aitortpena.</p> <p>Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileek bere horretan onartzen dituztela araudi honetan ezarritako baldintzak.</p> <p>5.Eskainiko diren dirulaguntzen zenbatekoa.</p> <p>Tolosako Udalak emango duen gehienezko dirulaguntza izango da laguntza jasotzeko modukotzat jo diren gastuen % 50 artekoa, 3.000 €-ko mugapean.</p> <p>Laguntza hauetarako aurreikusitako aurrekontua agortuko balitz, sortutako eskubideak hurrengo urteko aurrekontuen kontura kitatuko lirateke eta lehentasuna izango lukete hurrengo urteko eskarien aurrean.</p> <p>6.Erabakia.</p> <p>Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Udaleko Euskara departamentuak aztertuko ditu.</p> <p>Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, Hizkuntza Politikako udal batzorde informatzaileak dirulaguntzak emateko proposamena egingo dio dagokion organoari, erabakia har dezan.</p> <p>Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, halaber, emandako dirulaguntza dagokion gisan argitaratuko da.</p> <p>Udalak, batzorde informatzailearen bitartez, beharrezko deritzon informazio</p>	<p>—El plan de euskera de la empresa, del año en curso.</p> <p>—Declaración jurada sobre las solicitudes de subvención presentadas a las instituciones, así como de las subvenciones recibidas.</p> <p>— Autorización al Ayuntamiento para comprobar si se está al día con Hacienda y con la Seguridad Social o Certificado de los mismos.</p> <p>— Declaración jurada de no estar incurso en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la ley 38/2003 de 17 de noviembre.</p> <p>La presentación de la solicitud implica que la parte solicitante acepta íntegramente las condiciones establecidas en las presentes bases.</p> <p>5.Importe de las subvenciones a conceder.</p> <p>El importe máximo de la subvención a conceder por el Ayuntamiento de Tolosa será el 50% de los gastos considerados subvencionables, con un límite de 3.000 €.</p> <p>En caso de agotarse el presupuesto previsto para estas ayudas, el derecho a la subvención se liquidará con cargo al presupuesto del año siguiente, y tendrá preferencia frente a las solicitudes presentadas durante ese ejercicio.</p> <p>6.Resolución.</p> <p>Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, éstas serán estudiadas por el Departamento Municipal de Euskera.</p> <p>Finalmente, y tras recibir el informe técnico del departamento, la comisión informativa municipal de Política Lingüística hará la propuesta de concesión de subvenciones al órgano correspondiente</p>
--	--



<p>osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik.</p> <p>7. Onuradunen betebeharrak.</p> <p>Honako hauek dira onuradunen betebeharrak:</p> <p>a) Dirulaguntzaren arrazoi diren jarduerak egin edo/eta helburuak betetzea.</p> <p>b) Dirulaguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla Tolosako Udalaren aurrean justifikatzea.</p> <p>c) Udalak egin beharreko egiaztapen jarduketan pean jartzea.</p> <p>d) Tolosako Udalari berak lagundutako jarduera berberengatik jasotako beste dirulaguntzen berri ematea.</p> <p>e) Udalarekin hitzarmena sinatzea dirulaguntza ematea erabakitzen denean.</p> <p>f) Hitzarmena emandako dirulaguntzaren notifikazioa jaso eta hilabeteko epean sinatu beharko da.</p> <p>g) Hilabeteko epe hori igarota dirulaguntzaren onuradunari lepora dakioken arrazoiren bategatik ez bada hitzarmena sinatzen, enpresak dirulaguntzari uko egiten diola ulertuko da.</p> <p>h) 2020ko urtarrilaren 31 baino lehen honako dokumentazioa aurkeztu:</p> <p>—Egindako jardueren memoria.</p> <p>—Gastu eta sarreren balantzea.</p> <p>—Egindako gastuen faktura originalak edo konpultsatuak.</p> <p>—Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharren gaineko ziurtagiriak.</p> <p>8. Dirulaguntza ordaintzeko modua.</p> <p>Udalak erabakia hartu eta eskatutako</p>	<p>para que dicte su resolución.</p> <p>Esta será notificada a la parte interesada y la concesión de la subvención será publicada del modo que corresponda.</p> <p>El Ayuntamiento, a través de la comisión informativa, podrá requerir toda la información complementaria que considere necesaria antes de formular la propuesta de acuerdo.</p> <p>7.Obligaciones de la parte beneficiaria.</p> <p>Son obligaciones de la parte beneficiaria:</p> <p>a) Realizar las actividades y/o cumplir los fines que fundamentan la concesión de la subvención.</p> <p>b) Justificar ante el Ayuntamiento de Tolosa el cumplimiento de las condiciones, actividades y objetivos tenidos en cuenta para la concesión y uso de la subvención.</p> <p>c) Someterse a las actuaciones de comprobación que realice el Ayuntamiento.</p> <p>d) Comunicar al Ayuntamiento de Tolosa cualquier otra subvención que le haya sido otorgada para la actividad que se subvenciona.</p> <p>e) Formalizar un convenio con el Ayuntamiento tras el acuerdo de concesión de la subvención.</p> <p>f) El convenio se firmará en el plazo de un mes desde la notificación del acuerdo de la subvención concedida.</p> <p>g) Transcurrido el plazo de un mes señalado para la firma del convenio, si por alguna causa imputable a la parte beneficiaria no se formalizase, se entenderá que la empresa renuncia a la subvención concedida.</p> <p>h) Presentar la siguiente documentación antes del 31 de enero del 2020.</p>
---	--



<p>dokumentazioa aurkeztu eta gero ekingo zaio diru-laguntzaren ordainketari.</p> <p>9. Dirulaguntzen bateragarritasuna.</p> <p>Udalak emandako diru laguntza bateragarria da helburu berberengatik jasotako beste edozein diru-laguntzarekin.</p> <p>Hala ere, dirulaguntza ezin izango da izan, beste diru laguntza batzuekin batera zein bera bakarrik, lagundutako jardueraren kostua gainditzeko bestekoa.</p> <p>10. Dirulaguntza aldatzea.</p> <p>Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.</p> <p>11. Zuzenbide osagarria.</p> <p>Deialdi honetan espresuki zehaztuta ez den orotan, lege eta ordenantza hauek izango dira aplikaziozkoak:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala); horren garapeneko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala).</li><li>- Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorra (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017ko uztailaren 7a, 130 zk.).</li><li>- Tolosako Udaleko Euskara Zerbitzuak kudeatutako programen konturako zenbait diru laguntza arautzen dituen ordenantza (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017ko uztailaren 10a, 131 zk.)</li></ul> <p>12. Errekurtsoak</p> <p>Deialdi honen aurka berraztertzeko</p>	<p>— Memoria de las actividades realizadas.</p> <p>— Balance de gastos e ingresos.</p> <p>— Originales o copias compulsadas de las facturas de los gastos realizados.</p> <p>— Certificados de estar al corriente de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.</p> <p>8.Forma de abono de la subvención.</p> <p>Se procederá al pago de la subvención una vez que el Ayuntamiento haya resuelto y se hayan presentado los documentos requeridos.</p> <p>9.Compatibilidad de las subvenciones.</p> <p>La subvención concedida por el Ayuntamiento es compatible con cualquier otra recibida para el mismo fin.</p> <p>No obstante, el importe no podrá exceder, por sí solo o en concurrencia con otras subvenciones, del coste de la actividad subvencionada.</p> <p>10.Modificación de la subvención.</p> <p>Cualquier alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras entidades públicas o privadas, podrá dar lugar a la modificación del acuerdo de concesión adoptado.</p> <p>11.Derecho supletorio.</p> <p>En todo lo no previsto en la presente convocatoria serán de aplicación las siguientes disposiciones legales:</p> <p>— La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (Boletín Oficial del Estado de 18 de noviembre) y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio</p>
--	--



TOLOSAKO  
UDALA

<p>errekurtsua jarri ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurkatu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.</p> <p>Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.</p>	<p>(Boletín Oficial del Estado de 25 de julio);</p> <p>— La Ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa (Boletín Oficial de Gipuzkoa de 7 de julio de 2017, nº 130).</p> <p>— La Ordenanza reguladora de diversas subvenciones sobre programas gestionados por el Servicio de Euskara del Ayuntamiento de Tolosa (Boletín Oficial de Gipuzkoa de 10 de julio de 2017, nº 131).</p> <p>12.Rekursos</p> <p>Contra la presente convocatoria podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que la haya aprobado, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo.</p> <p>Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria.</p>
--	--